

ALKATETZAKO DEKRETUA

Lasarte-Orian, bi mila eta zortziko abuztuaren hogeita bederatzian.

Ikusirik Garaikoetxea-Landaberri Lehen Hezkuntzako Ikastetxeko Landaberri Eraikina Egokitzeko Obrak kontratatzeari ekiteko tramitaturiko espedientea.

Ikusirik ezen, Alkatetzak bi mila eta zortziko abuztuaren seiko datarekin emandako 2232-2008 dekretuaren bidez, aipaturiko obra horiek Gestión Técnica y ejecución de Obras S.A. eta Girolan S.L. enpresek eratzekoa zuten aldi bateko enpresa-batasunari adjudikatu zitzaizkiola, behin-behinean, 244.508,14 euroko zenbatekoan, gehi Balio Erantsiaren Zergari dagozkion 39.121,30 €

Ikusirik ezen, aurtengo abuztuaren 28an, 2008ko abuztuaren 6ko Alkatetzako 2232-2008 Dekretuaren bidez eskaturiko dokumentazio guztia aurkeztu duela, bai halaber behin betiko bermea, kontabilitateko IE 154-2008 dokumentuaren bidez kontabilizatua eta zenbatekoz 12.225,41 eurokoa.

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzeko 7/1985 legearen 21. artikulua ematen dizkidan eskumenen bertutez.

EBATZI DUT:

Lehenik.- **UTE Garaikoetxea-Landaberri** enpresa-batasun tenporalari, zeinek helbidean Eibarko (20660) Julian Etxeberria 9 – 1. solairuan baitu, behin betiko adjudikatzea Garaikoetxea-Landaberri Lehen Hezkuntzako Ikastetxeko Landaberri Eraikina Egokitzeko Obrak, 244.508,14 €-ko zenbatekoan gehi Balio Erantsiaren Zergari dagozkion 39.121,30 €

Bigarrenik.- Kontratistari kontratua adjudikatzeko ebazpen hau notifika dakiola hamar eguneko epearen barruan, eta errekeri dakiola kontratua dokumentu administratiboan formalizatzer berehala etor dadin.

Hirugarrenik.- Obrak burutzeko epea 14 aste naturalekoa izango da, zuinkatzea egiaztatzeko aktaren hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Laugarrenik.- Argitara dadila adjudikazioa Probintziako Buletin Ofizialean, kontratua esleitu den datatik kontatzen hasi eta berrogeita zortzi eguneko epean.

Nire aurrean,
Idazkaria